



**2019KO EPE:** EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZAKO IKUSKARIEN KIDEGOAN SARTZEKO OPOSIZIO-LEHIAKETA, HEZKUNTZAKO SAILBURUAREN 2019KO AZAROAREN 14KO AGINDUAREN BIDEZ DEITUA.

### **PROZEDURAREN JARRAIPENA**

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaraturako alarma-egoerak, COVID-19 koronabirusak eragindako osasun-larrialdiko egoerari aurre egiteko, administrazio-epeak etetea ekarri zuen, eta, ondorioz, izapidetzen ari zen oposizio-lehiaketa eten egin zen, osasun-larrialdiko egoera amaitu arte.

Gaur egun, deseskalatzeko planak aurrera egin du, eta, horren ondorioz, jarduera ekonomikoa, mugikortasuna eta herritarrek zerbitzu publiko zein pribatuak eskuratzeko dituzten beharrak suspertu egin dira. Horren ondorioz, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma-egoera luzatzen duen maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuaren 9. artikulua jarraituta, epe-mugen eta epe administratiboen etendura kendu da eta, 2020ko ekainaren 1eko efektuekin, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuko hirugarren xedapen gehigarria indargabetu da.

Horrenbestez, jakinarazten da hautaketa-prozedura honekin jarraituko dela.

Epaimahaiak egoki iritzitako albiste guztiak argitaratzeari ekingo dio, prozedurak aurrera egin dezan (probaren I. zatiaren behin betiko kalifikazioak, gainerako probak egiteko datak eta tokia, etab.), epaimahaiaren egoitzako Iragarki-taulan (CIFP Politécnico EASO LHII-Donostia) eta epaimahaiaren iragarki-taulan (aplikazio informatikoa); azken iragarki-taula hau honako helbide honetan kontsultatu ahal izango da: Internet <http://www.irakasle.eus> ("erabiltzailea" eta "pasahitza" sartuz) "EPE" Hezkuntza Ikuskaritza - Hautaketa-prozesuaren jarraipena - Epaimahaiak "iragarki-taula"

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 25ean.